

**Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa**  
**Programación didáctica anual/de curso**

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015071
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	D.B.H	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	4. maila
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	Euskal Hizkuntza eta Literatura		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>	Euskal Hizkuntza eta Literatura		
<b>diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Euskal Hizkuntza -eta Literatura- komunikaziorako kompetentzia Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	MIRARI AGUIRRE	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2022-2023

**Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:**

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3. Elkarbizitzarako kompetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia
5. Izaten ikasteko kompetentzia

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
<p>1. Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, bai eta haien edukia nahiz forma modu kritikoan interpretatzea ere, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko. (HLK, HHK, IPK)</p> <p>2. Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean espresatzea eta interaktuatzea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espiritu kritikoa hartzea oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko. (HLK, HHK, IPK, EK, IIK)</p>	<p>1. (1 eta 2. <b>Irizpidea</b>) Hainbat euskarritan dauden ahozko zein idatzitako testuak ulertzea eta interpretatzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat azalpen- eta argudio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz eta informaziorik eta daturik garrantzitsuenak hautatuz, proposatutako helburuari begira. (Hel.1,3,4)</p> <p>2. (3 eta 5. <b>Irizpidea</b>) Planifikatu ondoren, idatzizko testuak sortzea, paperean nahiz digitalean, gai sozial, politiko edo kulturaleri buruzkoak, ikasleen interesekoak, ikus-entzunezko baliabideen eta IKTen laguntzaz, kontuan hartuz komunikazio-egoera, eta</p>

3. Modu autonomoan gogoeta egitea hizkuntzen sistemei buruz, eta haien erabilera-arauak aplikatzea testuinguruan, testuan, perpausean eta hitzean, bai eta testuak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan ere, erabilera egokia, koherentea eta zuzena izan dadin, eta transferentziak positiboak izan daitezen. (HLK, HHK, IPK, EEK, IIK)

4. Norberak hautatutako idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu erreferentziaz gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko. (HLK, HHK, EEK, IIK)

5. Literaturako generoen, etapen eta obra nagusien oinarrizko konbentzioen ezagueraz baliatzea, era horretan literatura-testuak modu partekatuan ulertzeko, literatura-ondarearen bidez esperientzia indibiduala eta kolektiboa sinbolizatzeke, eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeke. (HLK, HHK, IPK, EK, EEK, IIK)

6. Gure errealitate elebiduna eta eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutu, interpretatu eta balioestea, soziolinguistikaren oinarrizko ezagueren bidez, era horretan jarrera positiboa izateko hizkuntzen eta kulturen aniztasunarekiko, hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko, eta euskara erabiltzeko. (HLK, HHK, EK, EEK, IIK)

7. IKTak modu kritiko eta autonomoan erabiltzea, informazioa eskuratu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko. (HLK, HHK, IPK, EK, IIK)

8. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta norberak konfiantzaz erregulatu ahal izateko hizkuntza-ikasketak. (IIK, IPK)

egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez. (Hel.1,2,3,7,8)

3. (4. **Irizpidea**) Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ikaskuntzako eta gizarteko ahozko harremanetan, bai eta interes sozial, politiko edo kulturalako eztabaidetan ere, elkarlanerako jarrera positiboarekin. (Hel.1,2,3,8)

4. (6. **Irizpidea**) Sistema linguistikoaz eta haren erabilera-arauez gogoeta egitea, eta jakintza horiek erabiltzea, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testu eta berrikuspen hobek egiteko. (Hel.1,2,3,8)

5. (7. **Irizpidea**) Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea eta erabiltzea hizkuntzari buruz gogoeta egiteko. (Hel.1,2,3,8)

6. (8. eta 10. **Irizpidea**) Euskal Literaturaren XX. mendera arteko eta Espainiar Literaturaren XVIII. mendetik gaur egunera arteko testu osoak edo pasarteak ulertzea, denen artean irakurrita eta entzunda, eta iritsi pertsonala ematea, oinarrizko literatura-ezaguerak erabiliz; laginik garrantzitsuenak ezagutzea, literatura-testuak hobeto ulertzeko eta norberaren kultura aberasteko. (Hel. 4,5)

7. (9. **Irizpidea**) Literatura asmoko testuak sortzea, ahozkoak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, hainbat generotakoak, sormena sustatzeko teknikak erabiliz, eredu gogoetan eta azterketan oinarrituta. (Hel.1,2,3,4,5,7,8)

8. (11. **Irizpidea**) Irakurtzeko ohitura garatzea, eta literatura gozamen-iturritzat hartzea, mundua, kultura eta hizkuntza ezagutzeko modutzat, eta nortasun pertsonala, kulturala nahiz soziala eraikitzeke eratzat. (Hel. 4,5,6)

9. (12. **Irizpidea**) Hizkuntza-aniztasuna kritikoki interpretatzea eta balioestea, oinarrizko ezaguera soziolinguistikoak erabiliz. (Hel.6)

10. (13. **Irizpidea**) Hizkuntza-ohitura nahiz -jokaera asertiboak izatea, bai eta euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa eta kooperatiboa testuinguru eleaniztunetan. (Hel.6)

11. (14. **Irizpidea**) Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea eskolako jardueretan informazioa bilatu, hautatu, kudeatu eta komunikatzeko. (Hel.7)

12. (15. **Irizpidea**) Ikasleak bere hizkuntza-ikaskuntzaz gogoeta egitea, bere ikasteko gaitasunean konfiantzarekin, autorregulazioa sustatzeko. (Hel.8)

**ARAZO EGOERA** [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

Arazo-egoeraren eranskina atzean itsatsita dago (II. Eranskina)

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
40 ord u	1.ebaluazioa	48 ord u	2.ebaluazioa	52 ord u	3.ebaluazioa
	Testu liburua 1-4 unitateak(erreferentzia)		Testu liburua 5-8 unitateak (erreferentzia)		Testu liburua 9-12 unitateak(erreferentzia)
	<p><b>KOMUNIKAZIOA:</b> <b>Mintzatu, entzun, irakurri eta idatzi.</b></p> <p><b>Testu-tipologiak:</b> Iritzi-artikuluak, deskribapen testuak.</p> <p>• <b>Arazo-egoera:</b> Euskara eta teknologia berriak bidelagun</p> <p><b>GRAMATIKA:</b> Adjetiboa, adberbioa, galdegaia; izen motak, juntadura: alborakuntza; izenordain arruntak eta indartuak juntadura: Juntagailu bidez; zehaztugabeak; <b>ADITZA:</b> Indikatiboa (Errepasoa)</p> <p><b>LEXIKOA:</b> Hitz motak; izenak sortzen dituzten atzizkiak; onomatopeiak; konnotazioa eta denotazioa; sinonimia eta antonimia; izenondoak sortzen dituzten atzizkiak; polisemia; aditzak sortzen</p>		<p><b>KOMUNIKAZIOA:</b> <b>Mintzatu, entzun, irakurri eta idatzi.</b></p> <p><b>Testu-tipologiak:</b> Gutuna- eskabidea, albistea</p> <p><b>GRAMATIKA:</b> izenordain elkarkariak. Izenordain; bihurkariak izenordain; determinatzaile mugatzaileak; determinatzaile zehaztugabeak; determinatzaile zenbatzaileak; aditz jokatuak; aditz-izena; perpaus osagarriak; moduzko perpausak; aditz trinkoak; denborazko perpausak; aditzaren aspektua; kausazko perpausak;; ondorio-perpausak. osagarri zuzena eta zehar osagarria; <b>ADITZA:</b> Baldintza (Errepasoa)</p>		<p><b>KOMUNIKAZIOA:</b> <b>Mintzatu, entzun, irakurri eta idatzi.</b></p> <p><b>Testu-tipologiak:</b> Ipuina, Kexa-gutuna.</p> <p><b>GRAMATIKA:</b> Deklinabidea; konparazio-perpausak; helburuzko perpausak; postposizioak; lokailuak;</p> <p><b>ADITZA:</b> Ahalera eta Subjuntiboa</p> <p><b>LEXIKOA:</b> maileguak; kalkoak; izenak sortzen dituzten hitz elkartuak; interjekzioak; esaera zaharrak eta lokuzioak; aditz-elkartek; atzizkien berrikusketa.</p> <p><b>ORTOGRAFIA:</b> loturik edo bereiz; adizkien, hitz elkartuen eta maileguen idazkera; kakotxak eta parentesiak; puntuazioa; ortografia eta teknologia.</p>

<p>dituzten atzizkiak</p> <p><b>ORTOGRAFIA:</b> Data eta orduak nola idatzi; zenbakien idazkera I; puntuazioa; loturik ala bereiz; -a itsatsia; H letra</p> <p><b>LITERATURA:</b> Euskararen historia eta Berpizkundea</p>	<p><b>LEXIKOA:</b> Adberbioak; hiztegia; arlo semantikoa, arlo lexikoa; kortesiazko esapideak; jatorri atzizkiak eta atzizki graduatzaileak; aurrizkiak eta atzizkiak; zabalkuntza semantikoa; berrezarpen lexikala.</p> <p><b>ORTOGRAFIA:</b> txistukariak; bait- partikula; zenbakien idazkera; maileguen idazkera, siglak eta laburdurak.</p> <p><b>LITERATURA:</b> Barrokoa eta Ilustrazioa.</p>	<p><b>LITERATURA:</b></p> <p>XIX. mendea eta XX.mendea.</p>
--	--	---

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGIA** aktiboa, ikasleen parte hartzea bultzatzen duen metodologia erabiliko dugu.

De la misma manera, a la hora de seleccionar los textos también tendremos en cuenta los proyectos del centro: Agenda 30, así como Hezkidetza Proiektua.

- Helburu nagusia argi utzi: **HIZKUNTZA- eta LITERATURA-KOMUNIKAZIOA** garatzea: hizkuntza ezagutza lortzeaz eta ezagutzak aplikatzeaz gain, hitzekin gauzak egiten jakitea izango da helburu nagusia.
- Edukien ezagutza prozesu bakar batean barneratzea: Gramatika hausnarketaren abiapuntua testua izango da. Testua testu-generotik abiatuta landuko da, ikaskuntza espezifikoek eskatzen dituzten komunikazio egoeren arabera. Edukietan aldaketak egon daitezke ikas-prozesuak eskatzen badu.
- Ikasleentzat esanguratsuak diren komunikazio proiektuek bideratutako ikaskuntza prozesua izango da.
- Hasierako ebaluazioa: gai bakoitzaren aurretik ikasleek horretaz zer dakiten azaleratzea.
- Ikasleak dakien horretatik abiatuta, ezagupenak zabaldu. Gaia beste arlo batzuekin erlazionatu.
- Jarduerak komunikazioari dagozkion bost gaitasunak garatzeko aukera emango dute.
  - Mota ezberdinetako jarduerak egin: galdera erantzunak, hutsuneak bete, berridazketak, aditzen taulak, testuak ahoz eta idatziz aztertu eta ekoiztu, autoebaluazio- eta koebaluaziorako galdetegiak, azterketa idatziak.

- Irakurmena: Irakurketa liburuaren azterketaren bidez ulermen maila neurtuko da.
  - Testu idatzien eta ahozko testuen ulermena.
  - Mintzamina lantzeko, taldeka edo bakarka; gaia aukeratu, gidoia prestatu, testua ekoiztu eta jende aurrean aurkeztu.
  - Idazmena: Ereduak aztertu, horren arabera norberak berea ekoizteko: eskema osatu ideien hurrenkerarekin, idazlana egin, zuzendu eta aurkeztu.
  - Solasean aritzea (elkareragina). Eztabaidak sortu, bideratu eta irtenbideak bilatu.
- Ikasleen artean eta irakaslearen eta ikasleen artean elkarreragina indartzea, ikasgela komunikazio testuinguru erreala bideratu, eta bertako lankidetzazko ikaskuntza indar dadin.
  - Ikasleen taldekatzea: lanak banaka, binaka eta taldeka egingo dituzte: informazioa aurkitu, aukeratu, planifikatu, egokitu...
  - Lanak egiteko edo aurkezteko teknologia berriak erabili.
  - Ikasketa prozesuaren hausnarketa bultzatzeko eta **ikasten ikasteko** kompetentzia era autonomoan erabiltzeko puntu hauek izango ditugu bereziki kontuan:
    - Ekoiztutako ahozko zein idatzizko testuan auto-ebaluazioa eta koebaluazioaren bitartez zuzenketak egitea.
    - Mapa kontzeptualen erabilera
    - Teknologia berrien erabilpena

**BALIABIDEAK** direla eta, honakoak erabiliko ditugu:

- Testu liburua: ERAGIN. Euskara eta Literatura DBH4, Santillana Zubia. Egiten jakin proiektua. (Gramatika, Literatura, Ortografia eta Ulermena) eta lan kuadernoa.
- Irakurketa liburuak:
  - Hitz pozoituak (1. ebaluazioan)
  - \_ (2. ebaluazioan)
- IKT baliabideak:
  - Oinarrizko baliabideak: ordenagailua, proiektorea, internet eta arbela digitala.
  - Web guneak: : [www.euskaljakintza.net](http://www.euskaljakintza.net), [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net), [www.bizkaie.com](http://www.bizkaie.com), [www.habe.org](http://www.habe.org), [www.bertsolari.com](http://www.bertsolari.com), [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net), [www.hiztegia.net](http://www.hiztegia.net), [www.ikasbil.com](http://www.ikasbil.com), [www.youtube.com](http://www.youtube.com), [www.musikazblai.com](http://www.musikazblai.com)
  - Multimedia baliabideak: CDak, pelikulak eta bideoak.
- Argitalpenak: aldizkariak, egunkariak, hiztegiak, entziklopediak...
- Irakasleak sortutako materialak

#### **ANIZTASUNAREN TRATAERA**

- Ikasle bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokituko den heziketa bermatu behar dugu.
- **Banako ezberdintasun eta heldutasun erritmo indibiduala** egokitu eta **neurri malguak** eskaini,

- Behar diren metodologi a aldaketak egin: gutxieneko edukietan oinarritu, arreta pertsonalizatua eta inklusio irizpideak jarraitu behar dira.

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observaci3n, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato did�ctico...].</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><b>CRITERIOS DE CALIFICACI3N</b> [peso y valor de cada criterio de evaluaci3n].</p>
<p><b>Hasierako ebaluazioan:</b> galdetegiak eta ahozko eta idatzizko probak.</p> <p><b>Prozesuaren ebaluazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera guztien portafolioa: (Eskemak, laburpenak, buru-mapak, galdera-erantzunak, integrazio-jarduera-sinpleak (idatzizkoak zein ahozkoak), behaketa-txantiloiak, kontrol-zerrendak eta Autoebaluazio- eta koebaluazio galdetegiak).</li> <li>- Irakurketa liburua</li> <li>- Integrazio-jarduera-konplexuak edo proiektua.</li> <li>- Azterketak.</li> </ul> <p><b>Amaierako ebaluazioa:</b> Ikasleen azken ekoizpenak (idatzizkoak, ahozkoak zein ikus-entzunezkoak) eta ebaluazioan zehar egindako lan guztiak eta azterketak.</p> <p><b>Eguneroko behaketa (JARRERA):</b> Etxerako lanak (E) Gelako lanak (G) Portaera (P) Euskararekiko jarrera (J) Material guztia edukitzea (M) Puntueltasuna (Punt.) Kanporaketak (K)</p>	<p><b>Edukiak (%60)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Azterketak: %60</li> </ul> <p><b>Prozedurak (%30)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketa liburua: %10</li> <li>• Integrazio-jarduera-konplexuak edo proiektua (arazo-egoera): %20</li> </ul> <p><b>Jarrerak (%10)</b></p> <p>Kalifikatzeko eredu honek aldaketak izan ditzake egoerak horrela eskatzen badu.</p> <p><b>Gutxienekoak:</b> -Oinarrizko ortografia 10 akatseko 0,1 puntu kenduko zaio. Guztira puntu bat galdu ahal izango da.</p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren</p>	

berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

**CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN** [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

**ERREKUPERAZIO-SISTEMA:**

Ebaluazio jarraia da, beraz, ebaluazio bat gaindituz gero aurrekoa(k) gainditzat hartuko dira(Kurtsoan zehar) .

**Aurreko kurtsoko pendienteak:**

Aurreko ikasturteko euskara gainditu gabe izatekotan, errekupeatzeko hainbat aukera izango dituzte:

- 4.mailako ikasturtearen ebaluaketaren bat gainditzekotan ( 5,5 puntu atera behar dira) 3. mailakoa gaindituta geratuko da.
  
- 1. Ebaluaketa gainditzen ez badute, 2. Hiruhilekoaren hasieran birpasatzeko materiala eta orientabideak emango zaizkie eta martxoan edo apirilean azterketa egin ahal izango dute.

LANAK: Irakasleak errefortzurako lan gehigarriak edo txostena prestatuko du, indartze neurri bezala.

**OHARRAK / OBSERVACIONES**

**JOKABIDE DESEGOKIEN ONDORIOAK**

Ikasleek, ikasgai honetan jokabide desagokiak izateak, berezko ondorioak izateaz gain, ikasgai honekin lotutako jarduera osagarrietan parte hartzeko aukeran ere ondorioak izango ditu.

Gauzak horrela, jarduera osagarriaren dataren aurretik, ikasle batek jokabide desagokiak izanez gero, irakasleak erabaki ahalko du, jarduera osagarriaren arabera, ikasle horrek jardueran parte hartu ahalko duen, edota ikastetxean bertan garatuko dituen konpetentzia horiek.

**II. ERANSKINA**

**ARAZO-EGOERA : EUSKARA 2.0**

<b>Arloa edo irakasgaia:</b> Euskara eta euskal literatura	
<b>Gaia:</b> Euskara eta teknologia berriak bidelagun	
<b>Maila:</b> DBH 4	
<b>Saioak:</b> 13 saio	
<b>Proposamenaren justifikazioa:</b> Askotan entzun izan dugu azken urteotan informazioaren eta	

komunikazioaren gizartean bizi garela. Teknologia berriek eta Internetek, bereziki, eguneroko bizimodua aldatu digute. Gaur egungo ikasleen erlazionatzeko modua saretik igarotzen da eta makina bat aukera daude teknologia berriak euskaraz erabiltzeko. Hizkuntza arloan ere konpetentzia komunikatiboaren garapenean konpetentzia digitala garatzea ezinbesteko osagaia bilakatu da: Informazioa kudeatzean, zeregin bat planifikatzean, testuak sortu eta partekatzean, produktu digitalak sortzean, elkarlanean aritzean eta emaitzak komunikatzean.

#### **Arazo-egoera:**

A. **Testuingurua:** “Euskaraldia” kanpainarekin bat eginez, gure ikastetxean ikasleek euskarazko IKT baliabideak erabil ditzaten sustatu nahi dugu, eta horretarako sarean 6 egun euskaraz ekimena abian jarri dugu, euskaraz lan egiteko lagungarriak izango zaizkien zenbait tresna ezagutaraziz.

B. **Arazoa:** Zer egin dezakegu gure sare-harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzeko? Egin dezakegu euskarazko IKT baliabideen erabilera eraginkorragoa eta arduratsuagoa? Sarean ere euskaraz bizi al gara? Zein baliabide erabiltzen ditugu euskaraz? Eta zertarako?

C. **Helburua:** Euskarazko IKT baliabideen ezagupena eta erabilera sustatzea ikasleen artean, beraien egunerokotasunean erabil ditzaten.

**Zeregina:** Ikasleek, taldeka, euskarazko IKT baliabideei buruzko multimedia elementuak dituen horma-irudia egingo dute, zeintzuk eta zertarako erabiltzen diren azalduz. Amaitutakoan, horma-irudien aurkezpena egingo dute gelakideen aurrean arbel digitala edo proiektagailua erabiliz.

#### **Oinarrizko konpetentziak:**

A. A. Zeharkakoak:

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia (jarduerak: oro har, denak)
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. (1,3,4,5,6,7,8,12,16,18,20 jarduerak)
- Elkarbizitzarako konpetentzia (12,15,16,17,18 jarduerak)
- Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia (5,6,7,12,13,14,15,16,17,18 jarduerak)
- Izaten ikasteko konpetentzia (1,2,12,15,16,18,20 jarduerak)

B. B. Diziplina-konpetentziak:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia (1,5,9,10,11,13,14,15,17,19 jarduerak)

#### **Helburu didaktikoak:**

- Euskara erabiltzeko testuinguru eta egoera berriak **sortzea**: sarean euskaraz **bizitzea**.
- Lanari dagozkien informazio iturriak **bilatzea**, **aukeratzea** eta era ordenatuan **gordetzea**.
- Akats ortografikoak, lexikoak eta morfosintaktikoak saihesteko IKT tresna erabilgarriak eta eskuragarriak **ezagutzea** eta **baliatzea**.



- Modu kooperatiboan idazteko, zuzentzeko eta komunikatzeko baliabideak ezagutzea eta erabiltzea.

#### **Edukiak:**

- Hizkuntza ohiturak aldatzea: gailuak euskaraz konfiguratu.
- Informazioa bilatzeko eta ebaluatzeko estrategiak, hitz gakoak, etiketatzea eta biltegiatzea.
- Zuzentasuna egiaztatzeko IKT tresnen erabilera: zuzentzaile ortografikoak, hiztegiak, estilo liburuak, ariketa interaktiboak, maileguak eta kalkoak.
- Modu kooperatiboan idazteko, zuzentzeko eta komunikatzeko tresnak: padlet.

#### **Jardueren sekuentzia:**

##### **A. Hasierako fasea** (Arazo-egoeran kokatzea eta lan-plangintza egitea)

0. Jarduera: Motibazioa eta arazo-egoeraren aurkezpena.
- 1,2. Jarduerak: Euskarazko IKT baliabideen erabilera eta hausnarketa
- 3,4. Jarduerak: Lan-plangintza irudikatzea eta adostea.

##### **B. Garapen-fasea** (Eduki-baliabideak eskuratzea)

5. Jarduera: Interneten ere lehen hitza euskaraz.
- 6,7,8. Jarduerak: Informazioa arakatu, bilatu, behatu, ebaluatu eta aukeratu; biltegiatu.
- 9,10,11. Jarduerak: Ortografia eta zuzentasuna lantzen.
- 12,16. Jarduerak. **Autoebaluazio- eta koebaluazio-jarduerak**
- 13,14,15. Jarduerak. Gure testuak idazten, zuzentzen eta konpartitzen.

##### **C. Aplikazio eta komunikazio-fasea** (Ikasitakoa modu integratuan aplikatu eta komunikatu)

- 17,18. Jarduerak: Nola antolatuko dugu ikasitakoa? eta Metakognizioa

##### **D. Orokortzea eta transferentzia** (Jakintza zehatza antzeko egoeretan erabiltzen ikastea)

19. Jarduera: Zenbat ikasi dugu? Eta egoera berri baten aurrean nola?
20. Jarduera: Zer ikasi dut egiten? Nola aritu naiz?

#### **Ebaluaziorako adierazleak:**

- Euskara lehenesteko testuinguru eta egoera berriak sortu ditu.
- Eskuratutako informazioa koherentziaz, zuzentasunez eta autonomiaz aplikatzen du.
- Zuzentasuna egiaztatzeko IKT tresnak eraginkortasunez erabiltzen ditu.
- Talde-lanean modu eraginkorrean eta errespetuzkoan aritu da eta IKTak egoki erabili ditu.

#### **Ebaluaziorako tresnak:**

**Prozesuaren** ebidentziak jasotzeko: proiektuaren jardueren taula, integrazio-jardueren taula, kontrol-zerrendak, autoebaluazio- eta koebaluaziorako galdetegiak eta jarreraren behaketa-txantiloia.

Lortutako **ikaskuntza** ebaluatzeko: Integrazio-jarduerak, ebaluazio-errubrikak, autorregulazio-jarduerak, azterketak, emaitzak jasotzeko txantiloia eta kalifikazio guztien kontrol-orria.

